

Nazioarteko Ekonomia Finala

AURKIBIDEA

1. Gaia: Nazioarteko Ekonomiari Sarrera

- *Zein da jarduera ekonomikoaren helburua?*
- *Zertaz arduratzen da nazioarteko ekonomia?*
- **Nazioarteko egituren analisia: sailkapenak eta herrialde taldeak**
 - *Ongizatea*
 - *Desberdintasunak*
- **Munduko Ekonomiaren Globalizazioa**
 - *Globalizazioa Harreman Kapitalisten Hedapen Gisa*
 - *Globalizazioa Elkarmenpekotasun Handiagoko Egoeratzat Hartuta*
 - *Estatua Globalizazioaren Aurrean*
 - *Politika Neoliberalak eta horien ondorioak*
 - *Iristen ez den iragazketa /filtrazioa*

2. Gaia: Nazioarteko Merkataritza Harremanak

- **Nazioarteko Merkataritzaren Egitura eta Bilakaera**
 - *Manufakturen eta zerbitzuen merkataritzaren hedapena*
 - *Merkataritzaren kontzentrazioa eta polarizazioa*
- **Nazioarteko Merkataritzaren Oinarriak**
 - *Nazioarteko merkataritzaren teoriak*
 - *Merkataritza-politiken orientazio orokorra: babesgintza*
 - *GATT-etik MME-ra*
 - *Munduko Merkataritza Erakundearen egitura eta funtzioak*

3. Gaia: Moneta eta Nazioarteko Finantzak

- ***Dibisak eta Nazioarteko Moneta Sistema***
 - *Dirua eta Nazioarteko Diru-Fluxuak*
 - *Kanbio Tasak eta Kanbio Erregimenak*
 - *Nazioarteko Diru-Sistema: Bretton Woods-etik Flotaziora*
 - *Nazioarteko Finantza Erakundeak*
 - *Nazioarteko Diru Funtza*
 - *Munduko Bankua*
- ***Nazioarteko finantza merkatuak: ezaugarriak eta bilakaera***
 - *Merkatu Finantzarioak*
 - *Baloreen merkatuak: Burtsak eta OTC merkatuak*
 - *Dibisen merkatua*
 - *Eratorien merkatuak*
 - *Finantzen Globalizazioa*
 - *Krisi Finantzarioak*
 - *Kanpo-zorraren krisia: 1980ko hamarkadako krisia*
 - *Kanbio-krisia: Asiako krisia*
 - *Banku-krisia: Atzeraldi Handia*

4. Gaia: Enpresa Transnazionalak

- ***Enpresa Transnazionalak (ETN): ezaugarriak, garrantzia eta bilakaera***
- ***Atzerriko Inbertsio Zuzena (AIZ): portaera, egitura geografikoa eta joerak***
- ***Enpresa Transnazionalen eta AIZaren ondorioak garapenean***
 - *ETN-en eragina garapenean*
 - *AIZ-en eragina garapenean*

5. Gaia: Nazioarteko Migrazioak

- ***Nazioarteko migrazioen bilakaera***
- ***Migrazioa eta Garapena***
 - *Garapenak migrazioa mugatzen du?*
 - *Garapenak migrazioa sustatzen du?*
 - *Migrazioak garapena mugatzen du?*
 - *Migrazioak garapena sustatzen du?*

1. Gaia: Nazioarteko Ekonomiari Sarrera

- *Zein da jarduera ekonomikoaren helburua?*

Jarduera ekonomikoak, produkzio faktoreen bidez ondasunak edo zerbitzuak ekoizteko egiten diren prozesuak dira, gizartearen beharrak asetzen dituztenak, onura bat lortzearren. Jarduera ekonomikoek aberastasuna sortzeko eta herrialde baten ekonomiari laguntzeko balio dute.

- *Zertaz arduratzen da nazioarteko ekonomia?*

Nazioarteko ekonomia, nazioz gaindiko ekonomi harremanen azterketa egiten du, batez ere, ondasun eta zerbitzu eta produkzio faktoreen fluxuak. Globalizazioaren fenomenoak erlazionatzen eta bultzatzen duen ezagutza-adar bat da. Nazioarteko ekonomia ere aztertzen du: fluxuen bilakaera eta faktore eragileak (ekonomiko, politiko eta sozialak), herrialde desberdinen garrantzia eta parte hartzea, baita hartutako politiken norabideak eta eraginak.

Nazioarteko ekonomia bi adarretan banatzen da nagusiki:

1. Kanpo merkataritza: nazioen arteko ondasun eta zerbitzuen trukea da. Gai horri buruz, nazioen arteko negozioak errazten dituzten aldagaiei buruzko teoriak garatu daitezke. Adibidez, konparaziozko abantailak.
2. Nazioarteko finantzak: aktibo finantzarioak eskala globalean erosi eta saltzeari dagokio. Besteak beste, akzioak, bonuak, finantza-deribatuak eta commodityak izan daitezke.

Nazioarteko egituren analisia: sailkapenak eta herrialde taldeak

Nazio Batuen sailkapen orokorrenak 3 taldetan sailkatzen ditu munduko herrialdeak:

- Garatuak: Munduko 30 herrialde “aberatsak” edota “industrializatuak” dira, iparraldeko herrialde kapitalistak. AEB, Kanada, Japonia, Europar Batasuneko herrialde gehienak, Suitza, Norvegia, Islandia, Australia, Zelanda Berria, Hego Korea, Turkia eta Mexiko. (1^o mundua)
 - Merkatu-ekonomiarako trantzizioa burutu dutenak: ekialdeko herrialde komunistak edo sozialistak, lehen Planifikazio Zentraleko Ekonomiak zirenak, adibidez, Errusiar Federazioa. (2^o mundua)
 - Garapen-bidekoak: munduko herrialde gehienak dira, hegoaldeko herrialde txiroak. Afrika, Latinoamerika eta Asiako herrialdeak Japonia izan ezik. (3^o mundua)
- + 4^o mundua: herrialde aurreratuenetan bizi diren baina baztertuta edo gizartean baztertzeko arriskuan dauden pertsona guztiak. Egoera hori gertatzen da aberastasuna modu desparekoan banatzen denean eta aberatsak pobreetatik bereizten dituen lerroa amildegi bihurtzen denean. Adibidez: Etxerik gabeko

pertsonak, baliabiderik gabeko adinekoak, drogazaleak, emakumeak, haurrak edo etorkinak.

Sailkatzeko irizpideak:

- Geografikoak: : lurralde eremu handiak, kontinente edo erregioen arabera...
- Ekonomikoak: "Garatuak": ELGE/OCDE (Ekonomi Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea), "Garapen bidekoak": Afrika, Latinoamerika eta Asiako gehienak eta "Trantsiziokoak".

Baina azkenaldian beste sailkapen motak badaude ere:

- Asiako Industrializazio Berriko Herrialdeak: industrializazio prozesuak bete dute eta gaur egun Hegoaldeko herrialderik garatuenak dira (Hego Korea, Hong Kong, Taiwan eta Singapur).
- BRIC taldea: Brasil, Errusia, India eta Txina osatzen duen taldea munduko populazioaren ia erdia ordezkatzeko dute eta izan duten hazkunde ekonomikoa eta nazioarteko merkataritzan parte-hartzearen ondorioz, nazioarteko inbertsioen ikuspegitik erakargarri bihurtu dira. (hegoaldeko herrialde emergenteak)
- Eragin Handiko taldeak: G-7/8 (Alemania, Erresuma Batua, Frantzia, Kanada, AEB, Italia, Japonia + Errusia) eta G-20 taldea (Turkia, Europar Batasuna, Argentina, Brasil, Korea, Mexiko, Txina, Indonesia, Saudi Arabia, Australia, India eta Hegoafrika + G-8).

Munduko Bankuaren ikuspegia:

Ekonomiak sailkatzeko erabiltzen duen irizpide nagusia per capita nazio-sarrera/produktu gordina (NSG edo NPG) da, 3 talde bereiztuz:

- Diru-sarrera baxukoak: 935\$ baino gutxiagoko NSG dutenak.
- Diru-sarrera ertainekoak (ertain-baxukoak eta ertain-altukoak): 936\$-3.705\$ arteko NSG dutenak (baxukoak) eta 3.706\$-11.455\$ arteko NSG dutenak (altukoak).
- Diru-sarrera altukoak: 11.455\$ baino gehiagoko NSG dutenak.

Ongizatea

Neurtzeko neurri klasikoena errenta Per capita edo BPG per capita izan da. Baina BPGa garapenaren ikuspuntu ekonomikoa besterik ez du barneratzen. Horrexegatik beste adierazle sortu dira herrialdeen garapen-maila neurtzeko, osasun-, hezkuntza- eta errenta-adierazleak barneratzen dituen Giza Garapenaren Indizea.

- BPGaren hutsuneak jarduera ekonomikoaren adierazle bezala: amaierako ondasun eta zerbitzuen balioa barneratzen du, produkzio horien edo azken erabilera kontuan hartu gabe (gauza guztiak berdin baloratzen dira); fluxu aldagaia da, eep jakin batean sortutako errenta kontabilizatzen du aurrekoa kontuan hartu barik; bakarrik merkatutik pasatzen dena baloratzen da, sektore informala barneratu barik (kontraturik gabeko lanak...); Emakume gehienak egiten dituzten etxeko lanak ez ditu kontuan hartzen.


BPG per capitatekiko Nazioarteko konparaketak egiteko 2 metodo ditugu:

- Kanbio tasa bitartez: herrialde bakoitzeko BPG AEBko \$etan adieraztea. Arazoa: ezin dute herrialdeko erosteko ahalmenaren parekotasuna islatu, herrialde bakoitzeko prezio-maila desberdina ez dutelako kontuan hartzen.
- Erosteko Ahalmenaren Parekotasuna (EAP): aurreko arazoa sahiesteko helburuarekin, hainbat herrialdetako prezioen gaineko azterketa sakona egin eta gero nazioarteko erosketari saski komun baten arabera adierazi. Bihurketa koefiziente bat sortzen da: Balioa >1 bada adierazten du herrialde horietan prezio-maila AEBtan baino txikiagoa dela (India) eta balioa <1 bada herrialde horien prezio-maila AEBkoa baino altuagoa dela adierazten du (Suitza).

Desberdintasunak

Ezberdintasun mota asko daude: diru-sarrerak, ongizatea, eskubideak, boterea eta ospea, klasea, kasta, sexua, jatorri etnikoa, adina, sexu-aukera/orientazio, etab. Inportanteak al dira? Batzuk diote ez direla garrantzitsuak, Neoliberalentzat errenta esku gutxitan kontzentratzea ez da arazoa, Tantaka (“trickle down effect” el de las copas) hori azkenean banatu egingo da (aberatsak dira inbertitzen dutenak eta enplegua sortzen dutenak eta beti beharko dute eurentzat lan egingo duen jendea). Zein ikuspuntutik? Justizia, eraginkortasuna eta efizientzia.

Desberdintasunak neurtzeko 2 modu: muturrak alderatuz edo populazio osoarentzako berdintasun-neurri bat aplikatuz (Gini indizea). Neurri Integralak: Gini Koefizientea, Palma (%10/%40). Muturren ratioak: S80/S20, S90/S10. Hainbat gabeziak: genero desberdintasunak.



Munduko Ekonomiaren Globalizazioa

II Mundu Gerraren osteko hazkundearen oinarriko eragileak:

- Teknologia eta Energia: Aldaketa teknologiko sakonak; gerrarako teknologiaren erabilpena industrian, petrokimika, burgingintza, garraioak... Prozesu eta produktuetan berrikuntzak; plastikoak, aleazioak, enpresen arteko lehia... Energia merkeko politika; kontsumoaren igoera, energia kostuen murrizketa, petrolioaren lehentasuna, petrolio iturrien monopolioa.
- Lan Antolakuntzan aldaketak: Lan antolakuntza Fordista garatu zen. Soldata harremana produktibitateari lotuta eta soldata errealean gorakadak. Industria harremana; negozioz kolektiboaren instituzionalizazioa, Estatuaren, patronalaren eta sindikatuen arteko harremana, lan merkatuaren arauketa. Kontsumo eredu masa kontsumo uniforme zen eta klase ertainen sendotzea ekarri zuen.
- Politika Ekonomiko Berria: Liberalismo ekonomikoaren bazterketa merkatuaren mugak agerian utzi eta krisialdiaren aurrean arautzeko beharra agertu zen. Keynesianismoaren gorakada; Estatuaren esku-hartzea ekonomian, zikloaren aurkako politikak eta Ongizate Estatuaren legitimizazioa.

Hedapenaren Bukaera: 70eko krisialdia

- Lan antolakuntzaren haustura: muga teknikoak zeuden (malgutasun txikia), soldata-produktibitatea harremanaren haustura, langabezia, lan merkatuaren segmentazioa eta malgutasuna.
- Energia ereduaren haustura (petrolioaren krisia): energia kontsumoaren igoera nabarmena eta petrolioarekiko menpekotaun handiegia.
- Nazioarteko moneta sistemaren haustura (dolar patriaren amaiera)
- Estatuaren krisialdi fiskala
- Kanpo zorraren krisialdia, gehienbat Latioamerika eta Afrikan

Globalizazioa Harreman Kapitalisten Hedapen Gisa

70eko hamarkadaren krisialdiaren ondorioz, 80ekoan Ongizate Estatuaren gainbehera mendebaldeko herrialde industrializatuetan gertatu zen. Monetaristek eta Eskaintzaren Ekonomiaren jarraitzaileek bultzatuta, desarauketa, eta kapitalismo merkatuzaleago baten eraikuntza agertu zen. Garapen bideko herrialdeetan NDF-k eta MB-ak inposatuta, doikuntza politiken aplikazioa (defizit publiko eta inflazioaren aurkako borroka, pribatizazioak, aurrekontu-murrizketak...) egin zen.

Planifikazio zentralerako herrialdeetan emandako eraldaketek trantsizio prozesu bat zabaltzen zuten kapitalismorantz. Duela hamarkada batzuk baino jende gehiago dago gaur egun harreman kapitalisten pean: produkzio, kontsumo eta inbertsio harreman kapitalistak gero eta hedatuago daude, eta gero eta era merkatuzaleagoan. Multinazionalak mundu mailara hedatzen dute euren jardura, merkatu berriak zabaltuz, nazioarteko merkatuan

errentagarritasuna bilatuz, edo ekoizpen prozesuaren faseak herrialde desberdinetan kokatuz.

Globalizazioa Elkarmenpekotasan Handiagoko Egoeratzat Hartuta

Gobernu estatalak boterea galtzen hasiak dira (autonomia gutxiago ekonomi politika egiterakoan) euren ahalmena estatuen gaineko beste erakunde batzuetara pasatzen ari delarik. Nazioarteko merkataritza eta kapital fluxuei dagokienez, elkartrukeak gero eta eragozpen eta traba gutxiagokoak dira, gobernuen arteko akordio desberdinetan oinarrituta. Garraio eta komunikazioen alorrean emandako aurrerapenak ondasun eta zerbitzuen zein informazioaren elkartrukea erraztu dute.

AEBen hegemonia ekonomikoaren amaiera eta Europa, Japonia eta Asiako Ekialdeko herrialdeen konkurrentzia. Harreman ekonomikoetarako trabak desagertzen ari direnez, ekonomia bakoitzaren portaerak eragin handiagoa izango du besteetan (elkarmenpekoagoak). Ekoizpen eta kontsumo harreman kapitalistak gero eta hedatuago egoteaz gain, elkarri gero eta lotuago ere egongo dira enpresa transnazionalen jardueraren bitartez (merkatu berriak, lan-esku merkea, edo lehengaien eskurapena bilatuz eta ekoizpen prozesua zati desberdinetan banatuz). Baina batzuen eta besteen menpeko harremanen desagertpenik ez da egongo.

Globalizazioa, liberalizazioari esker emandako merkatuen integrazio gero eta estuagotzat hartu daiteke. Globalizazioaren hedapena desberdina da merkatu nagusietan: handia inbertsioen alorrean, txikiagoa merkataritzarenean, eta oso murrizta pertsonentzat.

Ohikoa da globalizazio mundu guztiari eragiten dion fenomeno positibo gisa ikustea. Baina irabazleen eta galtzaileen arteko dinamika gisa ere uler daiteke. Fluxu ekonomikoak ez dira guztiz globalak: zenbait ekonomietan kontzentratuta eta beste batzuetara gutxi ailegatuta.

Globalizazioaren tresna nagusiak aurrerapen teknologikoak garraio eta komunikazioan alorretan izan dira. Enpresa transnazionalak aurrerapen teknologikoei lotutako kostuen merketzeak aprobetxatzen jakin dutenez, globalizazioaren onuradun nagusiak dira. Nazioarteko zenbait erakunde izan dira sustatzaile nagusiak, adibidez: Munduko Bankua, Munduko Merkataritza Erakundea eta Nazioarteko Diru Funtza.

Estatua Globalizazioaren Aurrean

Ezaugarriak: Esku-hartze publikoa arlo ekonomikoan beherakorra (keynesiarren tankerako politiken baztertzea). Ongizate Estatuaren desegituraketa (desarautzeak, aurrekontu murrizketak, babes sozialaren narriadura, privatizazioak...). Estatuen gaineko erakundeen sorrera eta autonomiaren galera ekonomi politikak aurrera eramaterakoan. Garapen bideko herrialdeetan doikuntza neurriak kanpotik inposatuta, Estatuen ahultzea ere

ekarri dutelarik. Estatu bakoitzaren ahulezia agerian geratzen da nazioarteko finantza krisialdi, espekulazio-mugimendu eta enpresa transnazionalen joan-etorrien aurrean.

Baina estatu batzuen ahalmena irizpideak ezarri eta euren interesak defendatzeko nabarmenak dira (G-7/8ren kasua, besteak beste). Desarauketa eta liberalizatorako neurriak ez datoz “zerutik jausita”, gobernuen erabakien ondorioak baitira. Oso jarrera babeszalea herrialde industrializatuen gobernuen aldetik lehiakorrak ez diren produktuen alorretan. Etorkinen sarreraren gaineko kontrol zorrotzak; ekoizpen-faktoreen artean lana da mugikortasun geografiko gutxien duena nazioarte mailan, eta horren gaineko legediak gobernuen esku jarraitzen du. “Inperialismo” garai berri baten bultzada AEBen gobernuaren aldetik irailaren 11az (11S) geroztik, nazioarteko sostengurik gabeko eraso armatuen bitartez. Gaur egungo krisialdi ekonomikoaren paradoxa, non esku-hartze publikoa bihurtzen den konponbide nagusia hasiera batean, eta gero gaitz guztien erruduna.

Politika Neoliberalak eta horien ondorioak

1970eko hamarkadako krisiaren ondoren (estanflazioa), Iparraldeko ekonomietako mozkin-tasa berreskuratzeko honako hauek konbinatzen dira: 1- Berrikuntza teknologikoa, eskulana aurrezten duena. 2- Enpresen transnazionalizazioa, kostuak murrizteko 3- 1980tik, aldaketa politika ekonomikoan, 1 eta 2 lagunduz (globalizazioa) eta lankostuak murrizten lagunduz ⇒ politika neoliberalak:

- Estatu gutxiago, merkatu gehiago: Pribatizazioa, desarautzea, liberalizazioa eta malgutzea
- Ongizatearen Estatuaren murrizketa (↓Gastu Soziala)

Globalizazio neoliberalak Hegoalderantz eta Ekialderantz hedatzen da, Iparraldea nagusi den erakundeen laguntzarekin:

- Nazioarteko Diru Funtza (NDF) eta Munduko Bankua: - Hegoaldean 1980tik aurrera: egiturazko doikuntza-programak eta Ekialdean 1990: Merkatu-ekonomiarako trantsizioa.
- Munduko Merkataritza Erakundea (MME) = Uruguay-ko Txanda (1986-94)

Politika neoliberalak defizit publikoaren aurkako borroka hartzen dute helburu nagusitzat, batez ere gastu publikoa murriztearen bidetik, eta, oro har, Estatuaren esku-hartzeak ekonomian duen garrantzia jaistearen bidetik (GP/BPG % ↓). Baina erresistentzia sozialei aurre egin behar die, batez ere gastu sozialaren murrizketak ematen direnean.

Politika neoliberalak diru-bilketa osoari eutsi edo murrizteko joera dute, baita zerga-sistemaren progresibitatea murrizteko ere: zuzeneko zergapetzeagatik diru-sarreraren pisua mantendu edo murrizten dute (errenta, sozietateak, ondarea, oinordetzak),

zeharkakoaren pisu erlatiboa handituz (BEZa, zerga bereziak). Zuzeneko zergen barruan, sozietateen mozkinen gaineko zergaren pisuak urteak daramatza behera egiten (zerga-tasen beherapenagatik eta salbuespen eta desgrabazioengatik), eta lan-errentenak, berriz, gora (baina haren progresibitatea murrizten da). Guzti horrek: Enpresa-etekina berreskuratzen laguntzen du; Errentaren banaketan desberdintasunak areagotzen laguntzen du eta Defizit publikoa kontrolatzeko gastua murriztera behartzen du Estatua.

- 1) Iparraldeko mozkin-tasa berreskuratzea: Neurri handi batean politika neoliberalen ondorioz (lan-merkatua malgutzea), lan errentek Iparraldeko ekonomien errenta nazionalen (BPG) duten partaidetza nabarmen jaitsi da 1980ko hamarkadatik. Enpresa-etekina berreskuratzea (mozkin tasa \uparrow) desberdintasun handiagoa errentaren banaketan ekartzen du.
- 2) Ekonomiaren finantzarizazioa, langabezia eta krisia: 1980ko hamarkadaz geroztik, ekonomiaren finantzarizazioa = mozkinak finantza merkatuetan jartzen dira inbertsio produktiboan (kapital-metaketa) baino askoz gehiago, beraz, finantza-eremua erreala baino askoz gehiago hazi da.
 - Iparraldean, finantza-merkatuen gorakadak enpresa-mozkin berreskuratuak erakartzen ditu, errentagarritasun handiagoa dutelako, inbertsio produktiboa murriztuz. Politika neoliberalak sustatutako merkataritza-liberalizazioak lehia areagotzen du, arrazionalizazio-inbertsioa sustatuz (eskulana aurrezteko); horrek, inbertsio txikiagoarekin batera, enplegua murrizten du eta barne-eskaria moteltzeko joera du $\Rightarrow \Delta$ PIB txikiagoa. Ia Neoliberalismoak bultzatutako desarautze finantzarioak erraztu egiten du merkatu finantzarioetako eragiketa gehienak espekulatiboak izatea, batez ere produktu deribatuekin egindakoak (azpiko aktibo batetik dator balioa) etorkizunekoan, aukeren eta swap-en merkatuetan (trukeak) \Rightarrow Burbuilak, mota guztietako aktiboen inguruan; horiek lehertzean = finantza krisiak.
 - Gerraostearen hedapenean Iparraldeko politika keynestarrak lanpostuak sortzea lehenesten zuen (helburua = enplegu bete): inflazioa onartzen zen enpleguari eutsiko zion BPGren hazkundearen truke eta ekonomia moteltzen zenean, Δ gastu publikoa hura berpizteko. 1980ko hamarkadaz geroztik, politika neoliberalak inflazioa eta aurrekontuoreka (zero defizita) lehenesten ditu enplegu osoaren ginetik (defizit zero \Rightarrow Sarrerak = Gastuak).
 - Ia Neoliberalismoak bultzatutako liberalizazio eta desarautze finantzarioak zerga-paradisuetan (offshore zentroak) du adierazgarri handienetako bat. Zergarik ez izatea eta gardentasunik eza (banku-sekretua) dituzte ezaugarri, aberastasun handiei, enpresa multinazionaleri, bankuei eta inbertitzaile instituzionaleri zerga-ihesa errazten diena. 2008an krisia piztu zenean, G-20k

horiek ezabatzea proposatu zuen, baina mantendu egin ziren, finantza merkatuak arautzeko borondate politikorik ez zegoela erakutsiz.

3) Gero eta zorpetze publiko eta pribatu handiagoa iparraldean: desarautzea eta finantzarizatzea ⇒ krisi finantzarioen errepikapena; krisi horietako batzuek atzeraldi ekonomiko handiak eragiten dituzte:

- Gerraostearen hedapenean (1945-73) ia ez zen atzeraldi garrantzitsurik izan, keynestarren esku-hartzeak ziklo ekonomikoa leuntzen baitzuen.
- Aitzitik, 1980ko hamarkadaz geroztik, politika neoliberaleri esker, gorabehera zikloko handiak izan dira ⇒ lau atzeraldi izan dira iparraldean.

Iristen ez den iragazketa /filtrazioa

Erantsitako ilustrazioari filtrazioa deitzen zaio. Promesa neoliberal bat aipatzen du, hots, merkatuek askatasunez funtziona dezaten utziz, estatuaren esku-hartzerik gabe, hazkunde ekonomiko handiagoa lortzen dela; eta hasieran aberastasuna esku gutxitan kontzentratzen bada ere, gero herritar guztiengana iragazten dena, alegia.

Idea hori globalizazioaren marearen igoeraren antzekoa izango litzateke, hau da, globalizazioaren mareak herrialdeak diren txalupa guztiak igotzen dituen dioena.

Hala ere, munduko biztanleen artean errentaren banaketa desberdina izateak agerian uzten du iragarritako filtrazio bidezko banaketa oso urrun dagoela, bereziki egoera ahulenean daudenentzat

2. Gaia: Nazioarteko Merkataritza Harremanak

Nazioarteko merkataritza ekonomiaren nazioartekotze- edo internazionalizazio prozesuaren erakusle nagusietako bat da.

Nazioarteko Merkataritzaren Egitura eta Bilakaera

II. Mundu Gerraz geroztik nazioarteko merkataritzak hedapen bikaina (baina ez homogenea) ezagutu du. 1960ko hamarkadaren amaiera arteko hazkunde bizkorra garai horretako ekonomia-hedakuntza orokorraren testuinguruan gertatu zen. Orduan hasi ziren merkataritzaren liberalizazio multilateralaren aldeko lehen urratsak jorratzen GATT akordioaren lerrotik. Baina 1970eko hamarkadako ekonomia-krisi estrukturalaren leherketarekin joera trukatu zen eta Mendebaldeko herrialdeetan merkataritza babes-neurri berriak aplikatzen hasi ziren produktuen nazioarteko trukeen hedapen-erritmoa murriztuz. Nazioarteko merkataritzaren hedakuntza honek eragin zuzenak izan ditu munduko ekonomian, aipagarria da globalizazio-prozesua bizkortzeko joera. Nazioarteko merkatuak ere hedatu eta indartu egin dira eta horrek produkzio-arloko eskala-ekonomia garrantzitsuak ahalbidetzen ditu. Honek produktibitate-hazkunde arinak ekarri ditu eta horrela lanaren zatiketa eta produkzioaren espezializazio sakonagorako baldintzak ezarri dira; nazioarteko merkatuen oligopolizazio-dinamika eta enpresa transnasionalek merkatu hauetan duten nagusitasuna erraztuz. Merkatu-esparruak zabaltzean lehia-baldintzak aldatu egin dira, orain prezioa eta produktibitateaz gain beste faktore kontuan hartu behar dira, hala nola kalitateak eta produktu-diferentziazioak, nazioarteko banaketasareen gaineko kontrolak, publizitateak, etab. Beraz, Nazioarteko merkataritzaren hedakuntzak 2 aurpegi dituen konkurrentzia-joera bizkortu duela: baldintza eraberrituetan islatzen den nazioarteko lehia biziagoa eta, hein berean, nazioarteko merkatu inportanteenen oligopolizazioa zeina enpresa transnasionalen nagusitasunean gorpuzten den.

Merkataritza-arloko kanporako joera oso aldakorra da herrialde batetik bestera, eta hori neurtu daiteke indize batekin. Indize horrek erakusten du herrialde batek garai jakin baterako ekoizten duen produktuarekiko zenbat saltzen duen nazioarteko merkatuetan esportazio gisa ($X+M$ / BPG). Bestalde, estaldura-tasaren indizea agertzen da, honek erakusten du esportazioen tamaina inportazioekiko. Ehunekotan ematen denez, ehunetik gorako indizea erakusten duten herriek merkataritza-balantzan superabita erakusten dute eta, oster, ehunetik beherako indizea dutenak defizita dute.

Manufakturen eta zerbitzuen merkataritzaren hedapena

Historikoki nazioarteko merkataritzaren fluxu nagusiak ondasunen esportazioak eta inportazioak izan dira. Merkataritza kolonialaren garaian ondasun horien parte garrantzitsua lehengaiez osatutakoa zen, XX. mendeko 80ko hamarkadara arte iraun zuena. Iparraldeko

herrialdeek manufaktura-gaiak esportatzen zizkieten beren koloniei eta hauek nekazaritza-gaietan eta mea-gaietan zuten espezializazio produktiboa eta, beraz, horien esportazioak bideratzen zituzten herrialde garatuetera. Baina azken hamarkadetan lehengaiak merkataritzan izandako pisu espezifikoa ahultzen ari da gero eta nabarmenago eta manufaktura-gaien garrantzi absolutua eta erlatiboa handitu egin da.

Ibilbide hau ulertzeko ondasunen nazioarteko merkatuetako egitura eta bertako prezioen eraketa ulertzea ezinbestekoa da. MMEren datuak prezio korranteetan daude emanak eta mea-gaietako merkantzia garrantzitsuena petrolio da. Jakinaenez petrolioaren merkata oligopolistikoa da eta prezioen gorabeherak oso indartsuak. Oinarritzko urteko petrolioaren prezioaren mailak asko baldintzatzen du produktu honen merkataritzaren balio finala.

Merkataritzaren osagaien bilakaeraren errealitate osoa biltzeko beste ezaugarri garrantzitsu bat aipatu behar da, zerbitzuen merkataritza hartzen ari den garrantzia hain zuzen. Laburbilduz, bistakoa da munduko merkataritza-harremanak gero eta gehiago industria eta zerbitzuen fluxuez osatua daudela. Beraz, kolonialismo garaiko eta ondorengo merkataritza-eredu tradizionalen lehengaien garrantzia apurka ahitu egin da eta lehentasuneko merkataritza-gaiak industria eta zerbitzuetakoak dira egungo eredu.

Merkataritzaren kontzentrazioa eta polarizazioa

Egoera disparekoak aurkitzen ditugu estaldura-tasa edo merkataritza-balantzari dagokionez. Herrialde batzuek merkataritza-superabit iraunkorrak izan ohi dituzte, hala nola Alemaniak, Japoniak, petrolio-esportatzaileek edo Asiako hego-ekialdeko herrialde gehinenean, hauetatik azkenaldian bereziki aipagarria Txina izanik. Beste muturrean aurkitzen dira merkataritza-defizit kronikoak dituztenak, besteak beste gutxien garatutako herrialde gehienak baina baita ere garatutako hainbat herrialde: Erresuma Batua, Australia, Espainia... eta batez ere Ameriketako Estatu Batuak. Izan ere, nazioarteko merkataritzaren egoera honetan superabita ezagutzen dutenek maileguz ematen diete defizita pairatzen dutenei eta horrek finantza fluxuen zirkulazio ikaragarria sorrarazten du nazioarteko finantza-sistemaren itxura baldintzatuz.

Alabaina, merkataritzaren polarizazioaren erakusle nagusia esportazioek eta inportazioek lurralde jakin batzuetan kontzentratzeko duten joera da. Hain zuzen, Europa, Ipar Amerika eta Asiako ekialdea dira nazioarteko merkataritzaren gune nagusiak, zehazki hiru eremu horietan munduko esportazio osoen % 85 egiten da. Mendebaldeko herrialde gutxi batzuek merkataritzaren gehiena bideratzen duten bitartean, munduko gainerako herrien multzo zabala bazterrean geratzen da merkataritza dinamikatik. Gutxien garatutako herriak dira batez ere, baina hainbat garapen-bideko herri ere oso zaila dute munduko

merkatuetako sarbidea. Eta egoera hau mundu-mailako errenta-disparekotasunen iturri nagusietariko bat da. Hau da, hain zuzen, merkataritza-disparekotasun nagusiaren erakuslea.

Bestalde, beste ezaugarri bat ere aipagarria da merkataritzaren norabideari dagokionez: trukeak eskualde nagusietan eta berauen artean egiten dira. Munduko ekonomia osatzen duten hiru ardatz nagusiak —Europa, Ipar Amerika eta Asia/Pazifikoa— merkataritza kontzentratu ez ezik, fluxuen jatorri eta helburu garrantzitsuenak dira. Beraz, merkatu kontinentalak edo eskualdeko merkatuak dira nabarmen hazten ari direnak. Beste joera indartsu bat ere aipagarria da, alegia, hiru ardatz nagusi horien arteko merkataritza-fluxuen trukea. Eta hiru gune horientzat bigarren mailako merkatuak dira Hego eta Erdialdeko Amerika, Estatu Independenteen Komunitatea, Ekialde Hurbila edo Afrika. Ondorioz, munduko merkataritzaren irudiak erakusten du hiru merkatu kontinentalez osatutako errealitate globala, non hiru merkatu nagusi horien artean truke-dinamika indartsua gertatzen den eta merkatu nagusi bakoitzak bere ingurumari kontinentalean ekarpen-eragina burutzen duen.

Egile batzuek (Krugman eta Obstfeld, 2006) herrialdeen arteko merkataritza trukeak trinkoagoak izateko hiru arrazoi hauek ematen dituzte: herrialdeen tamaina handia, herrialdeen arteko distantziaren laburtasuna eta herrien arteko merkataritza-traben ahulezia. Herrien arteko merkataritza-fluxuak azaltzeko lehen bi faktoreen eraginez grabitate-eredua deritzona eraikitzen da. Eredu horren arabera, gainerako baldintza guztiak berdin mantentzen direnean lehen aipatutako bi faktoreek —herrialdeen ekonomia-tamaina edo BPG eta distantzia— determinatzen dute herrialdeen arteko merkataritzaren maila eta trinkotasuna.

Nazioarteko Merkataritzaren Oinarriak

Nazioarteko merkataritzaren teoriak

Ekonomialari klasikoek eraiki zuten berezko teoria nazioarteko trukeen onurak azaltzeko eta merkataritza-politika liberalizatzeko aldarria egiteko. Haien ustez bi herrialdek edo gehiagok onurak ateratzen dituzte bakoitza ondasun edo zerbitzu jakin batean edo batzuetan espezializatzen bada eta gainerakoekin trukean sartzen bada.

Adam Smith klasikoak abantaila konparatibo absolutuen teorian argudiatzen zuen nazioarteko merkataritzak herrialde partaide guztien aberastasuna handitzea ahalbidetzen duela baldin eta herrialde bakoitza espezializatzen bada gainerako herriekiko produkzio-kostu absolutu apalenak dituzten produktuen ekoizpenean. Horren ondoren David Ricardo etorri zen eta antzeko formulazioa plazaratu zuen baina haren ustez espezializazioaren funtsa ez dira herrialdearen abantaila edo abantail konparatibo absolutuak, baizik eta abantail konparatibo erlatiboak. Ricardok erakutsi zuen herrialde

batek beste baten aurrean ondasun guztietan abantaila absolutuak (ondasun guztiak besteak baino merkeago ekoiztea) izan arren, bi herrialdeek merkataritzatik onurak lor ditzaketela herrialde bakoitza espezializatzen bada abantaila konparatiboa duen ondasunaren produkzioan, hots, herrialdeko produktuaren ekoizpen-kostua herrialdeko egitura produktiboaren batez besteko kostuarekin alderatzen denean herrialde horretan produktu hori beste herrialdean baino merkeago ekoizten denean. Heckscher eta Ohlin herrialdeen arteko prezio diferentziak analizatzen saiatu ziren. Haien esanetan merkataritzaren dinamikaren atzean ekonomia desberdinen arteko produkzio faktoreen (lana eta kapitala) zuzkidura edo horniketa erlatibo diferentea dago. Hau da, lan ugari eta merkea duen herrialde batek lan-eduki handiko produkzio-prozesuetan murgildu beharko litzateke eta kapital ugari duen herrialde baten espezializazio produktiboa inbertsio-maila handiko sektoreetan gauzatu beharko litzateke.

Merkataritza-politiken orientazio orokorra: babesgintza

Merkataritza-politika herrialdeen arteko merkataritza arautzen duen erregulazio multzoa da. Gobernuak merkataritza-politikako tresna ugari erabiltzen dituzte merkataritza-arloko helburuak lortzeko.

Nazioarteko merkataritza azaltzeko laburbildu diren teoria hauek guztiek merkataritzaren liberalizazioa hobesten dute trukean sartzen diren herrien onura gehitze aldera. Haatik, munduko herrialde gehienek merkataritza-politika anbiguoak dituzte zeren liberalizazioaren erretorikaren azpian praktika protekzionista edo babes-praktika ugari ezkututzen baitira, globalizazioaren testuinguruan ere. Munduko Merkataritzaren Erakundeko partaide diren herrialdeek teoriarik merkataritzaren aldeko jarrera izan beharko lukete erakunde horren hastapenak partekatzen dituzten heinean. Baina, errealitatean herrialdeen ekonomia-politikaren lehentasuna tokiko industria eta ekonomia garatzea denez, babes-neurrietara jotzen dute sarritan egitura ekonomikoa bermatzeko aitzakiarekin.

Babesgintzaren helburua da herrialdeko produktu batzuentzat edo guztientzat nazio-merkatua ziurtatzea, horretarako produktu horien inportazioei sarrera-trabak ipiniz. Babes-tresna erabiliak artean honako hauek daude: suspertu nahi diren ekonomia-jarduerei emandako diru-laguntza estatalak; inportazioei ezarritako kupo kuantitatiboak edota muga-sariak (inportazioen gaineko eskubideak edo tasak); muga-sariak ez diren trabak (inportazio-gaien gaineko arautegi teknikoak, administratiboak, osasun-arautegiak, etab. edota esportaziorako «borondatezko» mugak).

GATT-etik MME-ra

II. Mundu Gerraren ostean, Nazioarteko Ekonomi Ordenaren zaindari gisa, nazioarteko erakunde batzuk eraiki ziren. Hurrengo kapituluan aztertuko dugun bezala, nazioarteko moneta-eta finantza-sistemaren erakunde erregulatzailerak Bretton Woods-en sortu ziren, egundaino zutik dirauten Nazioarteko Diru Funtza (NDF) eta Munduko Bankua indarrean jarri. Baina, garai horretan Estatu Batuen oposizioa zela medio, ez zen nazioarteko merkataritzaren arloan erakunderik sortu eta haren ordeztu nazioarteko merkataritzaren eremuan GATT hitzarmena sinatu zuten 23 herrialdek 1948. urtean. GATT (ondasunen merkataritzaren inguruko akordio orokorra) hitzarmen multilateralala da eta bere partaideen arteko merkataritza-harremanak ikuspegi librekanbista aintzat hartuz zuzendu zituen harik eta 1995. urtean MME eraiki zen arte. Beraz, NDF edo Mundu Bankua ez bezala, GATT hitzarmen orokorra zen eta ez zuen izaera organikorik izan.

GATTen sorreratik muga-sarien oztopoen ezabapena eta merkataritzaren liberalizazioa izan dira haren xede nagusiak. Helburu hauen bitartez GATTek lehen eta orain MMEk nazioarteko merkataritza suspertu nahi izan dute, horrela bere onurak herrialde kideetara hedatuko direlakoan. Helburu horietaz gain, GATTek merkataritza-gaietarako hastapen bateratuak ezarri zituen eta gaur egun MMEk barneratu ditu. Hastapen horiek hiru dira: 1- diskriminaziorik eza, 2- merkataritza-oztopo guztien ezabapena, 3- GATT kontsulta eta ekintza kolektiboaren sistema baten bidez bideratuko dela dio.

GATTen funtzionamendu era negoziazio-txanda edo -errondetan gauzatu zen. Zortzi izan ziren txanda guztiak eta azkenekoan, zortzigarrenean alegia, GATTen ordeztu merkataritza-erakunde berria sortzea erabaki zen: Munduko Merkataritza Erakundea (MME). GATTeko zortzi errondetan zehar hartutako erabakiek muga-sarien jaitsiera nabarmena ekarri zuten eta batik bat industria-gaietako sariak izan ziren murrizketa ezagutu zutenak. Muga-sariak ez diren bestelako merkataritza oztopoak (MBO) GATTeko Kennedy errondan (6º) barneratu ziren lehenengo aldiz liberalizazioaren agendan. GATTen 8º erronda aurreikusi baino 4 urte beranduago amaitu zen, zenbat alorretan adostasunik ezagatik akordiorik lortu ez zelako. GATTen azken errondaren emaitza inportanteenetariko bat Munduko Merkataritza Erakundea (MME) eratzea izan zen (izaera intuzionala du).

MMEren zeregin orokorra merkataritza multilateralaren arautegiaren kudeaketa edo gestioa da. Kudeaketa-betebehar horretan hainbat sail bereiz ditzakegu arautegiaren helburuaren arabera. Uruguaiko Errondaren mandatua izan zen MME hiru ardatzez osatuta egotea: aipatu dugun GATT bera alde batetik, GATS zerbitzuen merkataritzari egokitutako merkataritza-akordioa bestetik, eta hirugarrenez merkataritzarekin erlazionatutako jabego intelektuala TRIPS delakoa eta inbertsioa (TRIMS) .

Munduko Merkataritza Erakundearen egitura eta funtzioak

Munduko Merkataritza Erakundeak berezko egitura instituzionala du. Horrek eragin zuzena du nazioarteko merkataritzaren oinarrietan eta, oro har, munduko gobernagarritasunaren esparruan. MMEren aurrekontua herrialdeen diru ekarpenez osatuta dago, nazioarteko merkataritzan hauek duten pisuaren arabera. Haren erabakigune nagusia gutxienez bi urterik behin batzartu behar den Ministerio Konferentzia da. MME sortu zenetik sei ministerio-konferentzia garatu dira (2005 arte kontuan izanda). Lehen bietan ministeritza-aldarrikapenak plazaratzen dira eta teknologia eta merkataritza elektronikoaren inguruko akordio mugatuak hartzen dira. Hirugarren konferentzia erantzun sozialaren indarrak konferentzia bertan behera uztea ekarri zuen. Geroztik eragile sozialak nolabaiteko presentzia izaten ari dira ministerio-konferentzietan. Laugarren konferentzia Garapenaren Erronda jarri zen indarrean, Dohako Erronda izenaz ere ezagutzen dena. Dohako Erronda honek Cancunen zein Hong Kongen garatu ziren 5. eta 6. ministerio-konferentzietan izan zuen segida baina arrakasta handirik gabe.

MMEk bere Kontseilu Orokorraren bidez jardun iraunkorra gauzaten du ministerio-konferentzien izenean. Kontseilu Orokorrak bi zeregin gehigarri ditu, merkataritza-gatazkak sortzen direnean irtenbide multilateralak ezartzeko arbitraje- eta zigor-funtzioa lehena, eta bigarrena, kideen merkataritza politikak aztertzeo funtzioa. Horrela, gainerako erakunde multilateralek ez duten ezaugarri berezi eta apartekoa du MMEk, Diferentzien Konponketarako Organo izenaz ezagutzen den tresna. Konferentzian erabakiak hartzeo teoriaran botu indar berdina dute herrialde guztiek, baina presioa egiteko indar desberdinak. MME gatazketan erabakiak hartu eta zigorrak ezartzeko ahalmena duen erakundea bihurtu denez, bere agenda gai berri eta polemikoetara zabaldu da, ondoko esaerapean “merkataritzarekin erlacionatutakoak” (inbertsioak eta jabeko intelektualaren eskubideak) eta beste batzuetara zabaltzeko ahalegin bereziak egin dira (kontratu publikoak, ingurumena...).

MME-ren 3 ZUTABEAK		
Merkataritza eta Mugasariei buruzko Akordio Orokorra (GATT)	Zerbitzuen Merkataritzarako Akordio Orokorra (GATS)	Merkataritzari loturiko Jabego Intelektualari dagozkion eskkubideei buruzko Akordioa (TRIPS)
<ul style="list-style-type: none">- Mugasarien murriztapena- Ohialgintza sektorea- Nekazaritza- Atzerriko Inbertsioak- Subentzioak- Oztopo teknikoak- Dumping	<ul style="list-style-type: none">- Telekomunikabideak- Bankuak- Aseguruak- Turismoa- Aire Trafikoa- Itsaso bidezko trafikoa- Pertsonen trafikoa	<ul style="list-style-type: none">- Patenteen babesa- Egile eskubideak- Industri diseinua- Marka komertzialak- Artea, literatura- Falsifikazioak
Desadostasunaren epaiketa		

3. Gaia: Moneta eta Nazioarteko Finantzak

Dibisak eta Nazioarteko Moneta Sistema

Dirua eta Nazioarteko Diru-Fluxuak

Dirua: "Jendeak erabiltzen dituen aktiboak ondasunak eta zerbitzuak erosteko".

- Ezaugarriak: onartua, iraunkorra eta gordetzeko modukoa, garraiatzeko erraza, zatitu daitekeena, homogenea, mugatua...
- Funtzioak: ordainbidea, ondasunak eta zerbitzuak erosteko eta saltzeko balio du; kontu-unitatea: ondasunen eta zerbitzuen balorea neurtzeko balio du; balore-gordailua: eros ahalmena, etorkizunera transferitzeko balio du.

Gaur egun herrientzat nazioarteko harreman ekonomikoek garrantzi oso handia daukate eta harremanen artean ondasun eta zerbitzuen fluxuak eta kapital-fluxuak bereizten dira, eta jakina, fluxu hauek guztiek diru-mugimenduak eragiten dituzte. Nazioarteko kapital-mugimenduetan fluxu publikoak eta pribatuak bereizten dira:

- Publikoak: Aurrekontu publikoetatik, administrazio zentraletik, autonomia-erkidegoetatik edota udaletatik emandakoak dira eta garrantzi handia daukate batez ere garapen-bideko herrialdeentzat. Hauek merkatuko baldintza baino nabarmen baldintza hobeetan ailegatzen direnean, kontsesionalak direla esaten da eta Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO) ia guztia osatzen dute. Bilateralak edo multilateralak izan daitezke, nork kudeatzen dituen, eta baldintzatuak edo baldintzatu gabeak, jasotzaileek zertan erabili ahal dituzten.
- Pribatuak: Ia beti merkatuko baldintzetan ematen dira eta hiru motatako mugimenduak bereizten dira: Atzerriko Inbertsio Zuzena (AIZ), karterako inbertsioa eta beste inbertsio batzuk (batez ere maileguak).

Kanbio Tasak eta Kanbio Erregimenak

Truke-tasa edo kanbio-tasa: Moneta baten balioa da beste moneta batekiko neurtuta eta, normalean, atzerriko dibisa batek merkatu nazionalean duen prezio gisa adierazten da.

AEBetako dolarrak dituen batek 1,18\$ behar baditu euro (€) bat erosteko, euroak dituenaren ikuspuntutik 0,85€ behar ditu dolar (\$) bat erosteko. Prezio hauek aldatzen direnean devaluazio/errebaluazio edo depreziazio (balio-galtze)/apreziazio (balioirabazte) terminoak erabiltzen ditugu. Kanbio-tasak finkoak direnean devaluazio/errebaluazioaz hitz egiten da, eta, aldiz, kanbio-tasak malguak direnean, depreziazio/apreziazioaz hitz egiten da.

- Kanbio-tasa nominala: dibisa baten eta bestearen arteko kotizazioa finantza-merkatuetan; ez du prezioen eragina kontuan hartzen.

- Kanbio-tasa erreala: gure monetak atzerrian duen erosteko ahalmena adierazten du; prezioen eragina kontuan hartzen du.

Moneten balioak adierazteko hainbat era daude baina garrantzitsuenak bi dira, kanbioak finkoak eta malguak.

Kanbioak finkoak izateak ez du esan nahi ezin denik fluktuazio edo gorabehera-bandarik egon, are gehiago, kasu gehienetan kanbio finkoak aukeratzen direnean, kanbio finko doigarriak eta fluktuazio-tarteekin aukeratzen dira. Kanbio finkoen sistema batean debaluazioak eta errebaluazioak agintari eskudunek onartu behar dituzte. Herri batek bere monetaren balioa beste moneta bati (moneta-aingura) lotzea erabakitzen duenean, aingura bezala normalean herri indartsu eta egonkor bateko dibisa eta nazioarteko harreman ekonomiko handiak dituen herriko dibisa aukeratzen ditu. Gaur egun moneta-aingura garrantzitsuena AEBetako dolarra da. Badaude muturreko beste aukera batzuk ere, horien artean: moneta-batasunak (Europako Batasun Monetarioa), dolarizazioak, hau da, beste herri bateko moneta onartzea (Panama eta Ekuador) eta bihurketa-kutxak ditugu (Argentina). Muturreko aukera hauek herrialdeei subiranotasun ekonomikoaren galera handia ekartzen diete.

Berriz NDS batek kanbio-tasa malguekin funtzionatzen duela esaten da moneten arteko parekotasunak dibisa-merkatuetako eskariak eta eskaintzak finkatzen dituenean. Orduan, teorian behintzat, moneten flotazioa librea da, askea, nahiz eta gero praktikan flotazio hori nekez izaten den garbia. Gehienetan Banku Zentralak kanbio-tasa kontrolatzen saiatzen dira tarte edo marjina batzuen barruan mantentzeko. Agintari ekonomikoek hainbat modu daukate kanbio-tasa defendatzeko: dibisa-merkatuetan parte hartzea da dibisak erosiz eta salduz; interes-tasekin jokatzeko edo kapital mugimenduen gaineko kontrolak ezarriz. Kanbioak malguak direnean, monetaren balioa merkatuko eskariak eta eskaintzak finkatzen dute eta eskaria eta eskaintza horietan nazioarteko harreman komertzialak eta kapital-fluxuak eragiten dute. Fluxu hauetan eragina duten faktore batzuk: inflazio diferentzialak, interes-tasen diferentzialak, hazkunde-erritmo diferentek eta espekulazioak.

Kanbio malguren alde gehien aipatzen den arrazoia da baldintza ekonomikoak aldatzean egoera azkar zuzentzeko ahalmena izatea, hau da, egonkortzaile automatikoak izatea. Kanbio finkoen aldekoek, berriz, hainbat arrazoi ematen dituzte, besteak beste, diziplina, mugimendu espekulatzailen aurkako babesa, kanpo-merkataritzak eta inbertsioen bultzada, eta nazioarteko lankidetzak handiagoa. Nazioarteko merkataritzak eta inbertsioak bultzatzeko kanbio finkoak normalean hobekien dira, kanbio malguekin edozein eragiketarik duen arriskuari «kanbioarriskua» gehitu behar zaiolako

Nazioarteko Diru-Sistema: Bretton Woods-etik Flotaziora

Bigarren Mundu Gerra amaitzear zegoenean (1944), potentzia garrantzitsuenak (45 herrialde) Bretton Woods (New Hampshire) hirian bildu ziren Roosevelt presidenteak deituta, gerra osteko Nazioarteko Diru Sistema berria diseinatzeko. Nazio Batuen Moneta eta Finantza Konferentzia honek hiru aste iraun zuen eta bertatik Bretton Woods-eko sistema berria atera zen, baita sistema hau zaintzeko instituzioak ere, Nazioarteko Diru Funtza (NDF) eta Munduko Bankua (MB). Helburuak: ordena monetario berria, pagamendu balantzako desorekak konpontzea eta garapena nola bultzatu eta finantziatu aztertzea.

Diseinatu zen sisteman zurruntasuna eta malgutasuna konbinatzen ahalegindu ziren: zurruntasuna, uste zelako hau nazioarteko harremanentzat ona zela, eta malgutasuna, mundu berrian herrialdeak ez zeudelako prest edozer gauza onartzeko kanbioak finko mantentzearren. Bretton Woods-eko sistema kanbio finkoen sistema zen, kanbioak finkoak bai baina baita doigarriak ere eta fluktuazio tartekin. Azkenean urrean oinarritutako patro metalikoa ezarri zen; \$aren balioa urrearekiko finkatu zen (ontza urre bat=35 \$) eta gainerako moneten balioa \$arekiko finkatu ziren. Moneta bakar baten gainean eraikitako sistema bideraezina da epe luzera eta horrela adierazi zuen Triffin, bi gauza gerta zitezkeen: AEBek kanposuperabita izatea edo defizita izatea. Eta gertatu zena, bigarren kasua izan zen: AEBek ezin izan zuten mantendu dolarraren eta urrearen arteko bihurtgarritasuna, besteak beste, urre kantitatea ez zelako inolaz ere dolar kantitatea adina igo.

1971ko abuztuan Nixonen Administrazioak dolarraren eta urrearen arteko bihurtgarritasuna eten egin zuen eta hori Bretton Woods sistemarekin amaitzea zen. Urte haren amaieran dolarra lehenengo aldiz devaluatu zen (ontza urre = 38 \$ finkatu zen) eta fluktuazio-tarteak $\pm 2,25\%$ zabaldu ziren. 1973an dolarra bigarren aldiz devaluatu zen (ontza urre = 42,2 \$ finkatu zen) eta nahiz eta sistema berpizteko ahaleginekin jarraitu, azkenean 1975ean Jamaikako akordioekin (Kingstongo akordio izenez ere ezagutzen da) Bretton Woods-en heriotzari ofizialtasuna eman zitzaion. Ordutik aurrera herriek askatasuna dute kanbio-sistema aukeratzeko, debekatu zen bakarra urrearekin finkatzea izan zen. Herri garrantzitsuenek kanbio finkoen sistematik kanbio malguen sistemara pasatu ziren.

Nazioarteko Finantza Erakundeak

Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtza batera sortzeaz gain, lotura oso estua izan dute beti: bien egoitza Washingtonen dago, boto-sistema berdina da, MBko kidea izateko NDFko kidea izan behar da, eta ahozko akordio baten arabera, MBko burua beti AEBetakoa bada, NDFkoa ez da inoiz AEBetakoa izan behar eta praktikan orain arte beti europarra izan da.

Nazioarteko Diru Funtza:

Gaur egun 189 kide ditu, hau da, erakunde ia unibertsala da. NDFren antolakuntzari dagokionez, haren baliabideen iturri nagusia herriek ordaindutako kuotak dira, kuota horiek herri bakoitzaren pisu ekonomikoaren arabera finkatzen dira eta horretarako kontuan hartzen da, batez ere, BPGa baina baita beste adierazle batzuk ere, adibidez, irekidura-maila eta nazioarteko erreserba kantitatea. Eta herrien boto kantitatea ordaindutako kuotaren araberakoa da, beraz, Iparraldeko herrialde aberatsenek kontrolatzen duten erakundea da.

Hasieran NDFk bi zeregin zituen, erregulatuzailea eta kreditu-funtzioa. Funtzio erregulatuzailearen helburua parekotasun finkoen sistema bermatzea zen. Kreditu-funtzioaren helburua kanbio-tasa mantentzeko arazoak zizuten herrialdeei kredituak eskaintzea zen. Funtzio nagusia erregulatuzailea zen eta kreditu-funtzioa funtzio erregulatuzailearen menpe zegoen. 70eko hamarkadan NDFren papera ilunduta geratu zen, bigarren maila batean egon zen. Lehen funtzioa galdua zuenez, bigarrenean zentratu zuen bere zeregina, hau da, kreditu-funtzioan. Eta hauxe da gaur egun NDFren eginkizun nagusia: arazoak dituzten kideei baliabide finantzarioak erraztea.

Azpimarratzekoa da NDFren finantzazioa beti finantzazio baldintzatua dela, hau da, herri batek NDFren finantzazioa lortu nahi badu, hark proposatutako neurri ekonomikoak ezarri beharko ditu (austeritate-programa bat adostu).

Munduko Bankua:

Munduko Bankua (MB) garapen ekonomiko finantzatzen duen erakunde multilateral garrantzitsuena da. 1950eko hamarkadaren hasieratik Munduko Bankuaren funtzio bakarra garapena bultzatzea izan da, garapen bezala hazkunde ekonomiko ulertzen zuelarik. Munduko Bankua bezala ezagutzen duguna bost erakundek osatzen duten taldea da, hauek: Nazioarteko Berreraikuntza eta Garapenen Bankua (IBRD 1944), Nazioarteko Sustapenen Agentzia (IDA 1960), Nazioarteko Finantza Korporazioa (IFC 1956), Inbertsioak Bermatzeko Alde Anitzeko Erakundea (MIGA 1968) eta Inbertsioei buruzko Desadostasunak Konpontzeko Nazioarteko Zentroa (ICSID 1965). Bakoitzak bere funtzio propioak ditu baina gobernu-organoak, egoitzak eta langile berdinak dituzte.

Munduko Bankuaren helburua garapenerako egitasmo zehatzak izan dira eta ez ekonomia-plan orokorrak. Dena den, urtetan zehar aldaketa batzuk antzeman daitezke:

- 50-70: finantzatu zituen batez ere garraio-azpiegiturekin, energiarekin eta oinarritzko industriarekin erlazionatutako proiektu handiak.
- 70-80: nekazar, hezkuntza eta osasun proiektuak.
- 1980 aurrera: doikuntza sektorial eta egiturazko doikuntza-egitasmoak finantzatzen hasi zen.
- 1990 aurrera: sektore ahulenak babesteko neurriak.

Nazioarteko finantza merkatuak: ezaugarriak eta bilakaera

Merkatu Finantzarioak

Finantza-merkatuetan finantza-tresnak salerosten dira eta oso ezberdinak izateaz gain etengabe aldatzen dira. Funtzio nagusia inbertsio-aukera onak dituzten agenteei dirua bideratzea da eta merkatu hauek ez badute ondo funtzionatzen, ekonomiak ez du ondo funtzionatuko eta hazkundera oztopatuko da.

Era askotakoak dira eta sailkatzeko irizpide asko daude, besteak beste, arau juridikoen arabera (Burstak eta OTCak), eragiketaren momentuaren arabera (lehen uneko eta bigarren uneko merkatuak), aktiboen epeen arabera (dibisen eta kapitalen merkatuak), entrega-epearen arabera (eskurako merkatuak eta eratorrien merkatuak) eta kokapen edo integrazio-mailaren arabera (nazio mailakoak eta nazioartekoak).

Baloreen merkatuak: Burtsak eta OTC merkatuak

Arau juridikoen erabera merkatu antolatuak edo ofizialak eta ez-ofizialak edo OTC (over the counter) bereizten dira. Merkatu antolatu edo ofizialetan nahiko aktibo ezberdinak negoziatzen dira baina beti oso araututako merkatuak dira eta toki fisikoa dute. Merkatu ofizial garrantzitsuenak burtsa tradizionalak dira eta hauen artean inportanteena New Yorkekoa da. OTC merkatuak askoz berriagoak dira eta bertan kotizatzen duten enpresek bete beharreko arauak ez dira hain zorrotzak izaten eta ez dute toki fisikorik, merkatu elektronikoak dira. Sortu ziren merkatu ofizialetan sartu ezin ziren enpresei tokia egiteko eta bereziki teknologia berriekin lotutako enpresei.

Eragiketa egiten den momentuaren arabera lehen mailako merkatuak eta bigarren mailakoak bereizten dira. Titulu bat (akzioa, obligazioa...) lehen aldiz jaulkitzen eta saltzen bada, lehen mailako merkatua izango da. Bigarren mailako merkatuan titulu horien ondorengo salerosketak gauzatzen dira, hau da, bigarren eskuko merkatuak direla esan dezakegu.

Aktiboen epeen arabera merkatu monetarioak eta kapital-merkatuak bereizten dira. Merkatu monetarioetan (diru-merkatuak ere deitzen dira) epe motzeko, urtebetetik beherako aktiboak salerosten dira, eta kapital-merkatuetan, berriz, urtebetetik gorako epea dutenak. Normalean gobernuen bonoak, enpresen akzioak eta kreditu hipotekarioak kapitalen merkatuan negoziatzen dira. Merkatu monetario inportanteena dibisen merkatua da.

Dibisen merkatua:

Dibisa-merkatuetan moneta ezberdinak salerosten dira eta dibisen prezioak merkatuak finkatzen dituenetik (flotazioa nagusitu denetik), dibisa-eragiketen hiru laurden

inguruk helburu finantzario hutsa dute (espekulatzailleak dira). Dibisa-eragiketa bat ez da espekulatzaillea izango, helburua nazioarteko eragiketa burutzea bada; baina helburua dibisa-salerosketa hutsarekin irabaziak lortzea bada, orduan espekulatzaillea dela esaten da.

Dibisa-merkatuak munduko merkatu finantzario handienak dira. Bertan, batez ere bankuen arteko eragiketak gauzatzen dira, baina badaude beste agente batzuk ere, hala nola banku zentralak, enpresa transnazional handiak eta inbertitzaile instituzionalak (pentsio-funtsak, inbertsio-funtsak eta aseguru-konpainiak). Dibisa-merkatuak ez dira merkatu fisikoak eta salerosketak hiri handietan kokatutako hainbat zentro finantzariotan egiten dira (Londresen gehienak).

Erorriren merkatuak:

Entrega-epearen arabera eskurako merkatuak eta erorriren merkatuak aurkitzen ditugu. Eskurako merkatuan aktiboak momentuan (edo ia momentuan) ematen dira, eta erorriren kasuan, berriz, ez da horrela gertatzen, etorkizunean entregatzeko konpromisoak baitira. Erorriaren balorea beste aktibo baten balorean oinarritzen da eta horri menpeko aktiboa esaten zaio (kafea, petrolioa, metalak, interes-tasak, burtsa-indizeak, bonoak, dibisak, akzioak...).

Erorri garrantzitsuenak aukerak eta gerokoak dira. Gerokoak (forwards) araututako kontratuak dira eta, bertan, merkantzia edo finantza-tituluen (menpeko aktiboa) kopuru zehatza, aldez aurretik ezarritako prezioan eta epe jakin batean salerosteko konpromisoa hartzen da. Aukerak (options) merkantzia edo finantza-tituluen kopuru zehatza, aldez aurretik ezarritako prezioan eta epe jakin batean salerosteko aukera erosten da, hau da, aukeraren jabeak hitzartutako salmenta edo erosketa gauzatzeko edo ez gauzatzeko eskubidea hartzen du.

Kokapenaren arabera edo integrazio-mailaren arabera merkatu nazionalak eta nazioartekoak bereizten dira. Nazionalak (onshore merkatuetan) eragiketak moneta nazionalean egiten dira, eta bitan zatitzen dira: merkatu domestikoak edo etxekoak, eta kanpo-merkatuak. Etxeko merkatuetan eragiketak bertako monetan egiteaz gain, parte hartzen duten agenteak ere bertakoak dira. Kanpo-merkatuetan, aldiz, eragiketa bertako monetan egiten da baina parte hartzen duen agenteren bat atzerrikoa da (hobeto esanda egoitza atzerrian dauka). Offshore merkatuetan (nazioartekoak) egiten diren eragiketak beste moneta batean egiten dira eta agintariak ez dira hain zurrinak izaten arauekin atzerrikoen diru kantitateek ez dituztelako gehiegi kezkatzen. Hori dela eta, herri horretako jurisdikziotik kanpo egoten dira offshoreak. Dena den, finantza-kontuetan offshore terminoarekin paradisu fiskalak adierazi nahi izaten dira, hau da, erregimen fiskal oso berezia duten herrialdeak edo herrialdeetako gune finantzario bereziak.

Finantzen Globalizazioa

Globalizazioak, oro har, eta finantzen globalizazioak ere XX. mendeko 70eko hamarkadan hasi eta 80koan jarraitu bazuen ere, ikaragarri azkartu zen 90eko hamarkadan. Kapital-mugimenduen askatasunak munduko finantza-merkatuak integratu ditu. Merkatu finantzarioen liberalizazioa, besteak beste, honako neurrietan gauzatu da: interes-tasak desarautu dira, kredituen gaineko kontrol publikoa kendu da, sektorean sartzeko mugak gutxitu dira, finantza-entitateei autonomia handiagoa eman zaie, banku publikoak pribatizatu dira eta atzerriko kapital-fluxuak askatu egin dira.

Gainera laurogeiko eta, batez ere, laurogeita hamarreko hamarkadatik hona finantzen popularizazio nabarmena gertatu da, mundu guztia hasi da finantza-aktiboetan inbertitzen. Finantzen globalizazioari estu-estu lotuta ekonomiaren finantzarizazioa gertatu da eta finantzarizazioa honela azal daiteke: sortutako errentaren gero eta ehuneko altuagoa finantza-merkatuetara bideratu da, ekonomia produktiboa alde batera lagata, eta horrela izan da azken urteetan merkatu finantzario hauek (batzuek merkatu birtualak eta magikoak direla diote) oso errentagarriak izan direlako. Arazoa da merkatu finantzarioetan balore nominalak handitu handitzen direla baina ez dela aberastasunik sortzen.

Krisi Finantzarioak

Kanpo-zorraren krisia: 1980ko hamarkadako krisia

70eko hamarkadan Hegoaldeko finantzaketa asko aldatu zen eta, laburbilduz, pribatizatu eta bankarizatu egin zela esango dugu. Hamarkada horretan petrolioaren prezioa asko igo zen eta igoera horrek herri produktoreen sarrerak ikaragarri igotzea ekarri zuen. Petrolioaren negozioa dolarretan egiten zen eta dolarra 1971n eta 1973an debalutzea petrolioaren negozioarako kaltegarria izan zen eta hau petrolioaren prezioaren igoeraren atzean zegoen arrazoietakoa bat izan zen. Petrolio-produktoreen sarrera-igoera gastu-ahalmena baino handiagoa izan zen eta petrodolar asko Iparraldeko bankuetan gorde ziren. Iparraldeko bankuek, beraz, irtenbide bat aurkitu nahian Hegoaldeko herrialdeei maileguak oso erraz eta oso merke eman zizkieten gehiegi aztertzeke ordaintzeko gai izango ziren ala ez.

Laurogeiko hamarkadaren hasieran eta inflazioa kontrolatzeko AEBek interestasa igo zuten eta honi erantsi behar zaio baita dolarraren aprezioazioa 1981-84an eta lehengaien prezioen jaitsiera. Horrela, zorraren zerbitzua ikaragarri hazi zen eta herri zordunak ordaintzeko arazo larriekin aurkitu ziren.

Herri zordunek NDFren finantzaketa eskatzen zuten zorrari aurre egiteko baina NDFren finantzaketa beti finantzaketa baldintzatua da eta kasu honetan doikuntza-egitasmoak inposatu zituen. Doikuntza-egitasmo horiek Hegoaldetik Iparralderako

baliabide-transferentzia neto handia ekarri zuten eta ondorio ekonomiko eta bereziki ondorio sozial oso kaltegarriak eragin zituzten.

Kanbio-krisia: Asiako krisia

Krisi honek eztanda egin zuen 1997ko uztailean Tailandiak bere moneta (bath) erortzen utzi eta NDFren laguntza eskatu zuenean. Hego Korea, Tailandia, Malasia, Indonesia Hong Kong eta Filipinetan eragin zuen. Washingtingo Kontsentsuak planteatutako neurriak aplikatzearen ondorioa izan zen. Garbi ikusi zen kapital-fluxuak oso ezegonkorak izan daitezkeela eta atzerriko fluxuen «jarrera gregarioa» egiaztatzeak aukera paregabea izan zen. Atzerriko inbertitzaileek 1997an merkatu hauetan izandako konfiantza galdu egin zuten eta kapitalirteerak oso handiak izan ziren.

NDFk egoera konpontzeko inflazioa eta defizit publikoa kontrolatzeko neurriak agindu zituen eta oso neurri arraroak ziren, kontuan izanda herri horiek ez zutela ez inflazio-arazo nabarmenik ezta defizit publiko handirik ere. Eta NDFk inposatutako gastu publikoaren jaisiera oso kaltegarria izan zen, krisi ekonomikoa areagotu besterik ez baitzuen egin.

Banku-krisia: Atzeraldi Handia

2007an eztanda egin zuen krisia izen askorekin ezagutzen da: zekenkeriaren krisia, mendeko krisia, krisi morala, krisi globala eta atzeraldi handia, besteak beste. Krisi ekonomiko honek hiru hanka izan ditu: higiezinaren krisia, krisi finantzarioa eta krisi ekonomikoa edo «ekonomia errearen» krisia.

Etxebizitzaren prezioa etengabe igoko zelakoan familia pobreei hipoteka ugari saldu zitzairen. Gero, etxebizitzaren prezioa jaisten hasi zenean eta garbi ikusi zenean hipotekak ez zirela kobratuko, gauzak okertzen hasi ziren, hau da burbuila hipotekarioak eztanda egin zuen eta finantza-erakundeak arazoak izaten hasi ziren, euren artean deskonfiantza nagusitu zen ez baitzekiten bakoitzak zenbat zabor zeukan. Horrekin krisi finantzarioa ekonomia errealera pasatu zen eta Enpleguaren Krisia bihurtu zen.

Banku-sistemaren porrota ekiditeko eta etendako kreditu-fluxua irekitzeko gobernu guztiek, bankuak erreskatatzeko baliabide publiko itzelak erabili zituzten. Esportazioak eta inbertsioak erabat geldotuta zeudenez, gastu publikoa handitzeko neurriak, neurri keynesiarrak hartzen hasi zirela baita kontsumoa pizteko ahaleginak egiten ere. Gastu publikoa igotzeko, eraikuntza bultzatzea erabaki da sektore motorra delakoan. Baita kontsumoa bultzatzeko deiak egin zituzten, jendeak asko aurrezten zuelako. Nazioarteko koordinaziorako behar argia ikusi zen beraz, G-20 9 bilera egin zituen 2008tik 2016ra.

4. Gaia: Enpresa Transnazionalak

Enpresa Transnazionalak (ETN): ezaugarriak, garrantzia eta bilakaera

Enpresa transnazionalak dira produkzioaren internazionalizazioaren eragile inportanteenak. Enpresa transnazionalaz mintzatzen gara enpresa batek bere jatorrizko herrialdeaz harago beste herrialde batzuetan inbertsio produktiboak dituenen. Beraz, enpresa bat transnazionalizat hartuko dugu produkzio-ahalmena (fabrikak, makineria...) estatu batean baino gehiagotan daukanean. Definizio zabalago bat: «Jabetza eskuratu zein ez, eragiketak estatu batean baino gehiagotan koordinatzeko eta kontrolatzeko boterea duen enpresa da ETNa».

Bilakaera historikoari begira hiru motatako ETNak daude: 1º) XIX. mendearen bukaeratik, erauzketa (mineralak, petrolio) eta nekazaritza alorreko ETNek Iparraldea lehengaiekin hornitzen zuten (kolonizazio prozesuei lotuta). 2º) II MG eta gero, AEBko enpresa handiak Mendebaldeko Europan eta Latinoamerikan kokatzen ziren⇒ filialek eta egoitza nagusiek ondasun berdinak ekoizten zituzten, babestutako barne merkatuak eskuratzeko estrategia zen. 3º) 1970eko hamarkadatik aurrera, Iparraldeko enpresa asko (AEB, Europa eta Japoniakoak) ETN bihurtzen dira irabazi-tasa jaitsierari aurre egiteko (nazioarteratzea konponbide gisa).

ETNen garrantzia hiru oinarritzko ezaugarrietan dago errotuta:

1. Produkzio-sare transnazioaletan, herrialdeen artean zein barnean, prozesuak eta trukeak koordinatzeko eta kontrolatzeko duten gaitasunean.
2. Produkzio-faktoreen banaketan (lurra, lana, kapitala) zein politika publikoetan (zergak, merkataritza-hesiak, diru-laguntzak...) egon daitezkeen desberdintasun geografikoak beren alde aprobetxatzeko duten gaitasun potentzian.
3. Beren malgutasun geografiko potentzian: baliabideak eta eragiketak alde batetik bestera aldatzeko eta berriz aldatzeko gaitasuna, eskala globalean ere.

Enpresa transnazionalen jardunerako bideak aztertuko ditugu ondoren, bi bide nagusiak aztertu ere. Batetik, filialen bidezko ohiko ezarrera dago, antolakuntza mota honetan enpresa bakarra da ikuspegi juridikoaren arabera eta askotarikoa produkzio-unitateei dagokienez. Enpresa transnazionala izaera desberdinetako lantegiz osatzen da, enpresaren barnean funtzio eta eginkizun desberdinak dituztenak. Antolakuntza-egitura hierarkikoa itxuratzen da honelako ereduarekin. Eredu honetan etxe nagusia da inbertitzen duen enpresa eta erabakigune nagusia. ETNaren jatorrizko herrialdean kokatu ohi da eta enpresaren zuzendaritza eta kudeaketa zentralizatuaren arduragunea da. Aldiz, inbertsioak jasotzen dituzten enpresak edo lantegiak adierazteko etxe filialaren errealitatea dago. Nagusiki atzerrian kokatzen dira, eta etxe nagusiaren zuzendaritzapean daude. Printzipioz, enpresa filialek ez dute aparteko ahalmenik beren

enpresa-egitasmo propioa garatzeko; aitzitik, beren enpresa-helburuak ETNaren estrategia edo egitasmoaren logika orobateratuari atxikitzen zaizkio. ETNen antolakuntza-ereduaren bigarren mota enpresa-sarea da. Enpresa sareak eratzeko formula bat baino gehiago garatu dituzte enpresek, besteak beste: azpikontratazioak, frankiziak edota enpresa bateratuak.

Inbertsioa jasotzen duen herrialdearentzat lehenengoa onuragarriagoa da, bere egitura produktiboa zabaltzen duelako, enplegu berria sortuz; bigarrenaren kasuan, aldiz, aldaketa nagusia negozioaren titularitatearena da, kasurik onenean enplegua mantendurik eta txarrean nabarmen murriztuta.

Bilakaerari dagokionez, ETNen kopurua asko handitzen ari da, baina denak ez dira irudikatzen ditugun enpresa erraldioen antzakoak: 7.000 inguru ETN 1970ean eta 104.000 inguru 2010ean. Hauen egoitza nagusiak Iparraldeko herrialdeetan batez ere, baina gero eta gehiago Hegoaldeko zenbait herrialdeetan. Ekoizpen prozesuaren zatiketa posiblea den sektoreetan, (jantziak, kontsumorako elektronika ibilgailuak) zati bat (muntaiak) gero eta gehiago Hegoaldeko herrialdeetara eramaten da kostuak aurrezteko (batez ere eskulanari lotutako kostuak). 892.000 filial inguru daude munduan, gehienak Hegoaldean (Txinan %48, Hegoako bestelako lekuetan %9) Iparraldean %42 (horretatik %87 Europan eta %7AEBetan).

Estimatzen da 18 eta 21 milioi pertsona inguruk lan egiten dutela ETNek zeharka kontrolatutako enpresetan, hau da, akzio bidezko kontrolik gabe eta hauetatik %80 inguru Hegoaldean eta Ekialdean Fakturazio eta enpleguari dagokienez “kanporatzeko” modu nagusiak hauek dira: kontratupeko produkzioa, zerbitzuen azpi-kontratazioa eta frankiziak. Lan faktorean intentsiboak diren produktuetan (oinetakoak, jantziak, jostailuak eta baita elektronikan) kontratupeko produkzioa munduko merkataritzaren erditik gorako azpikontratutako enpresetan gelditzen den balio erantsia nahiko txikia normalean da, batez ere inportatutako osagaien muntaketa besterik egiten ez dutenean.

Atzerriko Inbertsio Zuzena (AIZ): portaera, egitura geografikoa eta joerak

Atzerriko inbertsio zuzena, herri batean egoitza duen erakunde batek beste herri batean diharduen edo jardungo duen enpresa batean parte-hartze iraunkorra izateko egindako nazioarteko inbertsioa. Parte-hartze iraunkorra esapidea adierazi nahi du: herrialde baten ikuspegitik AIZak izango lirake ez-egoiliarrek, iraupen luzeko harreman baten bitartez, enpresa hartzailean erabakitzeko ahalmena lortzeko asmoz burutzen dituzten inbertsioak.

Pertsona fisiko edo juridikoek burututako atzerri-inbertsioak AIZtat hartuko ditugu baldin inbertitzaileak enpresa hartzailearen jabearen % 10 edo gehiago eskuratzen badu. Akzioen erosketa kapitalaren %10etik beherakoa denean zorroko inbertsioak deritzogu.

Lehenengoa ustez egonkorragoa eta epe luzekoagoa (gero eta gutxiago) eta bigarrena epe laburrekoagoa, gorabehera handikoa eta sarritan espekulatiboagoa.

Azken hamarkadetan izandako joerei dagokioenez, AIZak hedapen handia izan du mundu mailan eta hegoalderako fluxuen garrantzia gorakorra hartu du. Fluxu hauen hartzailak herrialde gutxi batzuk dira eta ez orokortua. Fluxu hauen zati garrantzitsuak fusio eta absortzio prozesuen ondorioak dira, ez dute ahalmen berririk sortzen. Era berean, fluxu hauen zati handia eta gorakorra enpresa barruko fluxuak dira, zergak ekiditeko eginak, gehienetan paradisu fiskaletara eginak.

Fluxuen liberalizazioa eta “Merkatu berriak” zabaltzea gertatu da. AIZ izan da inbertsio mota dinamiko eta egonkorrena epe osoan zehar baina oso herrialde gutxi batzuetara iristen da. Balore-zorroko inbertsioen edo akzioen hazkunde paregabearen ondoren joera beherakorra; epe laburreko bonoetan egindakoak gora (oso fluxu aldakorrak). Maileguak maila apalean baina egonkorra, epe laburrekoak nagusi eta eskualde eta herrialde gutxi batzuetara baino ez dira iristen. Ez dago kanpo finantzapen pribatuaz baliatzeko eskuragarritasun orokorrik. Hego-ekialdeko Asia eta Latinoamerikako ertainetako herrialdeetara gehienbat. Txinak bakarrik inbertsioen herena, orain sarrera kanpo inbertitzailea.

Enpresa Transnazionalen eta AIZaren ondorioak garapenean

Bien jarrera aztertu baino lehen aipatu beharra dago garapen bideko gobernuen jarrera aldaketak. 60 eta 70eko hamarkadetan jarrera kritiko nabarmena izan zuten, ondoko arrazoi honengatik: subiranotasunaren galera norberaren garapen eredua aurrera eramaterakoan, eta esplotaziorako zein menpekotasunerako tresnatzat hartua Hegoaren aldetik Iparrarekiko. 80eko hamarkadatik aurrera era askotako erraztasunak eman ziren enpresa transnazionalen AIZ erakartzerako, euren ustezko onura automatikoengatik: hazkunde ekonomikoa, enpleguaren sorrera, dibisen sarrera, esportazioen gorakada eta transferentzia teknologikoa.

ETN-en eraqina garapenean

60ko eta 70eko hamarkadan: Garapen bidetan zeuden herrialdeek mugak jartzen zizkioten ETNen etorrerari; beren bizitza-ekonomikoa negatiboki baldintzatzen zutela uste zuten. 80ko hamarkadan: Garapen bidetan dauden zenbait herrialdeetan aldaketa gertatu zen, politika murriztatzaileetatik kanpo-fluxuak erakartzeko politiketara. AIZaren kantitate/bolumen besteko garrantzia dauka AIZa burutzen diren baldintzak zeintzuk diren.

ETNen inbertsioek beren interes propioei erantzuten diete; eta EZ herrialdeak dituen beharriaz. Beharriaz handiena duten herrialdeak dira arrisku gehien aurkezten dutenak (ETNen presentzia ia-ia nulua dutenak). Hurrengo ataletan gai desberdinetan izan duen eragin positiboak eta negatiboak aipatuko dira:

Kapitala eta Finantza Alderdia:

- (+) AIZak kapital sarrera ekartzen du Hegoaldeko herrialdeentzat (ad.: kapital fisikoaren hazkundera).
- (-) Gehienetan ETNek beren mozkinak jatorriko herrialdera bidaltzen dituzte.
- (-) Zergak jasotzeko orduan zailtasunak egon daitezke: ETNek mozkin oso baxuak aitortzeko herrialdeko presio fiskala "oso" garaia dela uste bada.
- (-) Hegoaldeko gobernu askotxok neurrigabeko finantzalaguntzak luzatzen dituzte filialak beren herrialdeetan ezar daitezkeen.

Produktuak:

- (+) ETNek enpresa lokalek baino produktibitate maila garaiagoa izan ohi dute.
- (-) Enpresa lokalekin lehiari ari daitezke, eta horrela merkatutik enpresok bialdu.
- (-) Esportaziorako edo luxuzkoak diren ondasunen ekoizpena

Teknologia:

- (+) Teknologia transferentzia
- (+) Eskulanaren heziketa
- (-) Normalean, filialak ez dira teknologi aldetik trinkoak diren produkzio prozesuaz arduratzen.
- (-) Kutsakorrek teknologiak/prozesuak erabil ditzakete.

Merkataritza:

- (+) ETNek herrialdeko esportazioak hazi ohi dituzte: dibisa sarrerak.
- (+) Hornitzaile lokalekin harremanak sendo daitezke
- (-) Bitarteko ondasunen inportazioen hazkundera
- (-) Kokaleku-ekonomiak (ad.: Mexikoko "maquila"). Ez dago harremanik bertako enpresekin.

Enplegua:

- (+) Lanpostuak sortu
- (+) Emakumezkoen enplegua
- (-) Bertako enpresen itxiera
- (-) Lan-baldintza ezegonkorak eta eskasak

AIZ-en eragina garapenean

Ezin dugu ontzat eman bere ustezko onuragarritasuna, berez:

- Ekonomia hartzaileek duten onurak jasotzeko aukera faktore askoren menpean (fiskalitatea, transferentzia teknologikoa, langileen prestakuntza, bertoko industrien gaineko zeharkako efektua, enpleguaren sorrera eta honen kalitatea, etc.) .
- Bere ustezko egonkortasuna gero eta txikiagoa (deslokalizazioa gero eta ohikoagoa, baina beste batzuek honen onurak jaso).
- Inbertsioetarako akordioek (aldebikoak, erregionalak edo globalak) lehentasuna ematen diote inbertitzaileen interesen defentsari, herrialde hartzaileen lehentasunak alde batera utzita.
- Zonalde frankoen eta meatzaritzaren zein petrolio ustiakuntzaren kasuak, besteak beste, oso gatazkatsuak izan dira ustezko onurak ebaluatzerakoan.

Orokorrean, ohitura handia egon da AIZaren onurak gainestimatzeke (potenzial handia egon badaiteke ere). Baina, efektu potentzial onuragarri horiek gauzatu ahal izateko, kapitalen erakarpenean soilik zentratutako politikak martxan jarri beharrean, beharrezkoa litzateke bertoko gaitasun endogenoak sortzea eta tokiko garapenerako estrategietan baliabide aproposak erabiltzea, AIZ zenbait baldintzen pean horretan integratuta geratuko litzatekeelarik (eta ez alderantziz).

5. Gaia: Nazioarteko Migrazioak

2 migratzaile mota aurki ditzakegu:

Behartutak direnak, hau da, errefuxiatuak eta borondatezkoa, migratzaileak. Migratzaileak: askatasun osoarekin hartutako erabakia izan da. Aldiz, errefuxiatuak: emergentziako egoerak eraginda: gatazkak, goseteak, errepresioa, indarkeria, hondamendi naturalak ... Badira diotenak "Behartuta – borondatezko" sailkapena ez dela egokia, migrazio guztiak neurri baten behartuak direlako; koertzio punturen bat dute eta baita borondate punturen bat ere.

Migratzaileen definizio onartuena zera da, kanpoan jaiotakoa den pertsona (atzerriko hiritartasuna izan edo ez). 2020an 281 milioi nazioarteko migratzaile egon ziren, munduko populazioaren %3,6; haietatik 135 milioi emakumeak ziren eta 146 milioi gizonak. Langile migratzaileak 169 milioi ziren 2019an. 2020an 3900 migratzaile desagertuak eta hilak.

Nazioarteko migrazioen bilakaera

2010-2015era Asia izan da jatorri nagusia eta Europa eta Ipar Amerika helmuga nagusiak. Europarako fluxu handiena Asiatik dator eta Ipar Amerikara berriz Latinoamerika eta Karibetik. Nazioarteko fluxu asko lurralde handien barnean ematen dira. Honela Asia, Europa eta Afrikan migrazio gehien jatorria eta helmuga Asia, Europa eta Afrika dira.

20 korridore nagusietatik, erdia baino gehiago Hegoa-Hegoa dira: (hiru exURSS, Bangladesh-Butan eta Afganistan-Pakistan), baina AEB da helburu nagusia bai Iparralde eta baita hegoaldekoena. Hego-Ipar korridore nagusiak: México-AEB (12,2 milioi), Turkia-Alemania (2,8 milioi) eta Txina, Filipinak eta Indiatik AEBtara. Ipar-Ipar korridore nagusiak: Alemania-AEB, EB-Australia, eta Kanada, Hegoa Korea eta EBtik AEBtara.

Errenta maila altuko herrietarako hiru migrazio fluxu nagusiak:

- Ipar Amerika eta Ozeania: "populatze migrazioa" ("kolonoak") Iparramerikara (AEB eta Kanada) eta Ozeaniara (Australia eta Zelanda Berria): herrien historian oinarritzen da, bertan lana dela eta egoitza izanda (5 urte) nazionalitatea eskuratzen da. Urteko migrazio helburuak finkatzen dira (%1-3%), AEBtan ez. Eskulan osoa kualifikatua (Kanada, Australia). AEBtan 1970 arte, migratzaile gehien jatorria europarra zen; 1980tik aurrera, jatorri Latinoamerikarra eta Asiarra dira nagusi. 2017an, AEB-etako 11,3 milioi Mexikon jaiotak dira, erdiak inguru "paperik gabe" Diaspora mexikarra: 37,7 milioi.
- Europa: II MG ostean Europako Hegotik mendebaldera (adibidez Espainiatik Suitza, Frantzia eta Alemaniara): kualifikazio baxuko eskulana. 1973tik 1990ra migrazio laborala eten egin zen: batzuk bueltatu egin ziren. 1980. erditik/1990. hasieratik, Alemania da helmuga nagusia (asko ekialdekoak). 1990, erditik atzeraldi handia arte:

helburu berriak (emigrazio tradiziozkoak): Espainia, Italia, Grezia, Irlanda...eta berriz Erresuma Batua, eta jatorri berrikoak: ekialdekoak eta Latinoamerikakoak. 2017 amaieran, Espainian ia 4,6 milioi atzerritar (populazioaren %9,8) eta atzerrian jaiotako 6,2 milioi (populazioaren %13,3) pertsona ziren. Emigrazio tradizio luzea (Amerika eta Europara), krisia aurretik migratzaile asko jaso ditu. 2010tik 2014ra, Espainiak migrazio saldo negatiboa izan du: punta 2013an eta 2016tik aurrera berriz ere positiboa.

- Pertsiar Golkoko eta aberastu berriak: langileak (gizonezkoak) jasotzen dituzte (kontratuarekin). Kualifikazio maila desberdineko langileak 2/3 urtetarako kontratatzen dituzte: gehienak (%80/90) sektore pribatuan, sektore publikoa bertakoentzat. Migratzaile % oso altua da herri batzuetan (pertsonek errotazio handia): joanetorriko langileak dira. Asko Asiatik heltzen dira (Filipinak, Indonesia, India, Bangladesh, Pakistan, Myanmar, Vietnam...), baita Egipto, Yemen, Palestina... (arrazoi politiko eta erligiokoak). Kontratua heldu aurretik beharrezkoa da eta kostu ekonomikoa altua da (paperak eta bidaiak izan daitezke 6/12 hilabeteko soldata).

Errefuxiatuen migrazio fluxu nagusiak: nazioarteko migrazioen % txikia dira (%10) (aldatu daitezke gatazken arabera...). Arrazoi berdinagatik ihes egin baina muga ezin dutenak pasa barne desplazatuak dira. 2017 amaieran 25,4 milioi errefuxiatu zeuden: 19,9 ACNURen kargu (Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Batzordea). 2017 amaieran 40 milioi desplazatu zeuden. Barne desplazatuen kopurua ere aldatu egiten da gatazken arabera ... baina 1990-tik aurrera errefuxiatuak baino gehiago dira batez ere potentzia handiak errefuxiatu kopurua mugatzeko neurriak hartu dituztelako. 2017 amaieran errefuxiatuen %68aren jatorria 5 herrietan dago: aipatzekoak dira Siria, Hegoaldeko Sudan eta Myanmar (650 mila rohingya). 2017 amaieran Iparrean daude bakarrik 2,9 milioi errefuxiatu (ACNURen kargupeko %15: %85 garabideko herrietan daude, normalean ingurukoetan). Gutxien Aurreratutako Herrietan (GAH) 6,7 milioi daude.

Migrazioa eta Garapena

- Garapenak migrazioa mugatzen du?

Migrazioen eragile nagusia azpigarapena eta pobrezia dira. Beraz, garapen ekonomikoa bultzatuz gero migrazioa mugatuko da bertan lanpostuak sortuko dira (t. neoklasikoa). Jatorrizko lurraldeetan gobernu aurrerakoi eta nazionalistak defenditzen dute. Helmugakoetan bai aurrerakoiak baina baita eskuin(mutur)ekoak ere. Emaizak ez dira oso argiak: Kontuan izan ez direla herrialde txiroenak migrazio fluxu handienak sortzen dituztenak; Herri bakoitzean ez dira txiroenak izaten gehien migratzen dutenak (kostu ekonomikoa altua).

- Garapenak migrazioa sustatzen du?

Garabideko herrietan egoera ekonomikoa hobetzean migrazioa handitu egin daiteke eta bakarrik garapen ekonomikoa oso altua denean txikituko lirateke migrazio-fluxuak. Garapenak hobekuntzak ekartzen ditu hezkuntzan, errenta mailan, emakumeen rolean... eta hauek migrazio sustatzaileak izan daitezke: egoera ekonomiko hobea/ikasketa maila altuagoa dutenak migratzeko aukera gehiago dituzte. Garapen ekonomikoak nekazaritza tradizionalako lotura sozialak hausten ditu: emigrazioa hirietara eta beste herrietara. Nazioarteko harreman ekonomikoak handitzen dira (merkataritza, komunikabideak...) migrazio aukeren inguruko informazio gehiago.

- Migrazioak garapena mugatzen du?

Migrazio-fluxuek jatorrizko lurraldeen barne-garapena oztopatzen dute batez ere eskulana kanpora joaten delako eta honek lan merkatua baldintzatzen du. Deskapitalizazio prozesua ematen da (azkarren ihesa/Brain Drain): badira uste dutenak kualifikatutako langileak garapenerako palanka izan daitezkeela jatorrizko herriak baldintza egokiak eskaintzen baditu. Herri aberatsak pobreak eginiko inbertsioaz baliatzen dira (hezkuntzan egindako inbertsioak ez du itzulerarik). Deskapitalizazioak ez du bakarrik garapen ekonomikoan eragiten, baita egitura demografikoan eta familien egituran ere: emigrazioguneetan "adin aktiboan" daudenak migratzen dute (zaintza kate globalak...). Herrialde hartzaileetan: lan eta soldata baldintzan kaskartzen dira; gastu soziala handitzen da... Askotan bertakoek baztertutako lanbideetan aritzen dira.

- Migrazioak garapena sustatzen du?

Jatorrizko herrietako garapen ekonomikoa bultzatu daiteke: Itzultzen badira eragin positiboa lan merkatuan (esperientzia gehiago, kualifikazio maila altuagoa) eta diru-bidalketak hazkuntzan eragin positiboa. Batez ere kontsumoan/soldata familiar gisa. Familien bizitza maila handitzen da, desberdintasunak txikitu daitezke baina "salto" soziala emateko beste hainbat gauza ere aldatu behar dira. Inbertsioan ez du eragin handirik (oso negozio txikiak) aldiro eta kuantitate txikiak bidaltzen dira eta. Dependentsia ere sortzen dela esaten da. Helmugako herrietan: Gehienak populazio aktiboan daude eta beraz, sarrera publikoak handitu daitezke eta dependentsia ratioa txikitu daiteke (pentsioentzat eta positiboa izan daiteke).

Migrazio fluxuak kontrako norabidean diru-bidalketak ekartzen dituzte: 20 bidalketa korridore nagusietatik 16 Ipar Hegoa norabidea dute. Ipar-hego bidalketen herena AEB-tatik ateratzen dira (lehen postuan Mexikorako norabidean: 22 \$ mila milioi). Beste korridore garrantzitsua: Arabiar Emir herria- India (14 \$ mila milioi). Bidalketak garapenerako fluxuak hirukoizten dituzte (gainera asko informalak dira).